

5-KANALAK

Atal honetan gure enpresa ezagutzera eman dadin erabiliko ditugun kanalak aztertuko ditugu: **Komunikazio kanalak, salmenta kanalak eta banaketa kanalak.**

KANAL MOTAK

KOMUNIKAZIO-KANALAK



Txartel banaketa kalean

Gure enpresa ezagutzera eman dadin txartel batzuko bananduko ditugu kalean. Dirua aurrezteko gainera, ez dugu pertsonik kontratatuko txartelak bana ditzan, guk geuk egingo dugu.



Web orrialdea

Web orrialdea sortuko dugunez, honen bidez, jendearekin kontaktuan egongo gara etengabe; bai saldu baino lehen, bai saldu ostean egon daitezkeen arazoekin. Bestetik, eduki dezaketen edozein kexa hartuko dugu kontuan.

SALMENTA-KANALAK

Erosteko eta saltzeko prozesuak

1-Hornitzaileekin

Gure hornitzaileak, guri produktuak emango dizkigutenak, denda fisikora etorri beharko dira. Nahiago dugu pertsonalki tratatzea bezeroak, eta modu horretan errazagoa izango da arazoak konpontzea. Beraz, behin produktua emanda, guk dagokion bonoa emango diogu, produktu mota, kantitatea eta kalitatearen arabera.



2-Bezeroekin

Gure bezeroek erosteko denda fisikoa edo online egiteko aukera izango dute. Beraz, ez dute dendara etortzeko beharra izango, web orrialdetik ere erosi ahal izango dute. Web orrialdetik egitekotan, edozein ordainketa mota onartuko da, eskudirua izan ezik, logikoa denez.

BANAKETA-KANALAK



Kanal-zuzenak

Guk kanal zuzenen bidez egingo dugu guztia. Bai bezeroetatik jasotzen ditugun produktuen eskurapena, bai produktu horien salmenta. Modu horretan, azken kontsumitzaileari zuzenki salduko dizkiogu produktuak eta bezeroak gure arreta nabarituko du. Ondorioz, etekin marjina handiagoa izango da, baina zailagoa izango da guzti hori kudeatzea.

Bezeroek interneten bidez produktuak eskuratuz gero, nahiago dugu garraio-enpresa bat erabiltzea. Egia da gastu handia izan daitekeela, baina ez dugu behartu nahi jendea gure denda fisikora etortzera.



Bitartekariak (fisikoak)

Erabiliko diren bitartekariak fisikoak izango dira; hau da, online erosketetan bezeroei produktuak helarazteko erabiltzen diren garraio-enpresa. Gure kasuan, enpresa hori Correos izango da. Correos-ek, gure produktuak gure web orrialdetik salduz gero, eramango ditu produktuak, bezeroetara hel daitezen.